

Europar bisoia mustelido txiki bat da, ilaje motz, marroi txokolate kolorekoa, eta, bereizgarri nagusi gisa, orban zuri batzuk ditu muturrean, ahoaren gainean eta azpian.

Espezie bakartia da, iheskorra eta lurralde-koia. Europar bisoia guztiz bizi da ibai inguru-nari loturik. Gogokoen dituen habitatak egoera ekologiko onean diren ibai tarreak dira, ur bazterreko landaredi trinko eta askotariko-duna.

## Banaketa eremua

Europar bisoia da Europako ugaztun txiki mehatxatuenen artean. XVIII. mendera arte, ia kontinente osoan zegoen hedatuta, baina azkeneko bi mendeetan, populazioa urritzen joan da, batez ere habitata hondatzeagatik, gehiegi ehizatzeagatik eta amerikar bisoiaren lehiarengatik, eta, hala, jatorrizko eremuaren % 3 baino gutxiago hartzen du gaur egun.

Izan ere, Frantzia eta Espainiako populazioa baizik ez dago gaur egun, elkarrengandik bereizirik, eta zenbait ale Danubio ibaiaren deltan (Egumania eta Ukraina) eta gunee txiki batzuk Errusian.



Argazkia: Madis Podra

## Mehatxuak

Europar bisoiaren mehatxu nagusiak dira:

### 1. Amerikar bisoiarekiko lehia

Biek dute habitat bera, baina amerikar bisoiak, handiagoa eta sendoagoa izanik, lekuz aldatzera behartu dezake europar bisoia, eta baita hura harrapakatu ere.

Amerikar bisoia XX. mendearren hasieran sartu zuten Europan, larrugintzarako ustategietan baliaitzeko. Une horretatik aurrera, ihesak egon ziren itxita zeuden aleen artean, eta andanaka ere jaregin zieten, eta, ondorioz, amerikar bisoiaren basa populazioak finkatu ziren 20 herrialde baino gehiagotan. Espezie exotiko inbaditzaile horrek nabarmenki eragiten dio biodibertsitate guztiari, eta bertako 47 espezieri baino gehiagori eragiten dio Europan.





## 2. Habitata hondatzea

Ibai eta ibar baso berezko anitzen ezabatze eta eraldatzeak, ureztaketarako ura ateratzeak eta kutsadurak gaiztotu egin dute ibai habitataren kalitatea larriki.

## 3. Arrisku demografiko eta genetikoak.

Populazioaren urria, gainerako populazio ezagunarekiko isolamendua (Danubioko delakoa eta Errusiakoa) eta Espainian hedatuta dagoen eremuaren beraren zatikatzea dirrela-eta, espezieak natur ingurunean iraiteko aukera arrisku oso larriaren pean dago.



Argazkia: Madis Põdra

## 4. Espeziearen hilkortasun ez-berekoa.

Ibilgailuek harrapatuta, zentral hidroelektrikoetan edo ureztaketa sifoietan eta abarretan itota.

## 5. Espeziea kontserbatzearen eta ibai ekosistemen gaineko kontzientzia urria jendartean.

Nola eta ez den espezie ospetsua, jendar-teak, oro har, ez du ezagutzen badenik ere.

LIFE13 NAT/ES/001171 "Ikuspegi berriak europar bisoiaren kontserbazioari buruz Espainian"

## LIFE LUTREOLA SPAIN

Proiektu hau finantzatzen laguntzen du Europako Batzordeak (% 75), LIFE+ programaren barruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, Errioxan, Aragoian eta Valentziako Erkidegoan garatuko da, 2014a eta 2018a arteko epean. Proiektuaren koordinazio lanak Tragsatec-ek egiten ditu, eta proiektuaren bazkide dira Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gasteizko Udala, Errioxako Gobernua, Aragoiko Gobernua, Valentziako Generalitatea, Senda Viva natura parkea eta Biso Europararen Elkartea. Europar bisoiak Espainian duen egoera hobetzeko asmoa du, bertan baitago berezko populazioetako azkenetako bat, biderragarrietakoa.



LIFE LUTREOLA SPAIN proiektuaren barruan gauzatzen ari diren ekintza nagusietakak dira:

- Amerikar bisoiaren populazio gunek ezabatzea europar bisoiaren hedapen eremuan eta arrisku guneetan.
- Europar bisoiaren populazio basatia ikusgarriago bilhurtzea populazio gehigarriak erantsiz, populazio gune berriak sortzea eta haien habitata hobetzea.
- Jarrainen sare eraginokorra sortzea bi bisoi espezieen egoera ebaluatzeko.

Onuradun-koordinatzailea:



Onuradun-ekidea:



Laguntzaileak:



# BISOI EUROPARRA

